

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Zerbitzu Juridiko Administratiboa

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Krispiñako 32.sektorea urbanizatzeko proiektuari

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran:

Lehena. Behin betiko onespena ematea Krispiñako 32.sektoreko gauzatze-unitateko Hitzarmen Batzarrak aurkeztutako urbanizazio-proiektuari, honako baldintza hauekin:

– “Krispiña” 32.sektorearen eremutik kanpoko zerbitzuen kanalizazioek udal lizentzia bereizita beharko dute bide publikoa okupatzeko eta obrak egiteko, eta ibilbidea enpresa hornitzaileak eta Udalak definituko dute.

– Nekazaritza Eremuko Zerbitzuan eta AMVISako bulego teknikoan obren hasieraren berri emango da baita horien plana ere, gainera astean behin bilera bat egingo da obra koordinatzeko eta berrikusteko.

– Ez da obra-hondakin edo isurketarik onartuko lurzatietan.

– Obrak garbiketa baldintzak beteko ditu, bereziki, mugan dauden guneeetan, eta bide publikoetan duen eragina ahalik eta txikiena izan dadin saiaturiko da.

– Urbanizazioan jartzen diren produktu eta elementuen ziurtagiriak aurkeztuko dira, aldiari aldiari, eta araudian eta baldintza orrietan eskatutakoa betetzen dela jasoko dute. Produktuen berariazko kalitate ziguila daudenean, horiek ere aurkeztuko dira.

– Orobat adierazi beharko da zer enpresak egingo duen kalitate kontrola, eta aldiari aldiari bidali beharko zaizkio Udalarari obren kalitatea kontrolatzeko planaren arabera egiten diren saiakuntzak.

– Proiektuak onartutako kalitate kontrola bete beharko du osotasunean, eta egiten den edozein aldaketa Udalarari jakinaraziko zaio baimena eman diezaion.

Onartutako proiektuari edozein aldaketa egin nahi edo egin behar bazaio, Udalaren oniritzia beharko du.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea Krispiñako Administrazio Batzarrari eta Krispiñako 32.sektoreko Hitzarmen Batzarrari.

Hirugarrena. Ebazpena ALHAOn argitaratzea. Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalik da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte edo argitaratze egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte edo argitaratze egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren

biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Hirigintza Plangintzarako Araudiaren zehazten duen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 141-4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz argitaratzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 4an

Zerbitzu Juridiko Administratiboko burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ